



“KANPOKO PRAKTIKAK” IRAKASGAIRAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK, INDUSTRIA INGENIARITZA ETA TELEKOMUNIKAZIO INGENIARITZA UNIBERTSITATE MASTERRETAN.

Hezkuntza lankidetzeta edo Lankidetzeta Eskolako sailetan: 225 ordu

“Kanpoko Praktiak” irakasgaia gaintzeko, gutxienez 225 praktika ordu burutu behar dira enpresa edo erakunderen batean, eskolan egoitza duen edo sail-atala daukan UPV/EHUko sail batean edo eskolan bertan. Praktiak hauek, hezkuntza lankidetzako hitzarmen baten bidez burutu behar dira.

Praktiken ebaluazioa burutzeko, enpresa, sail edo Eskolako tutoreak ikasleari buruz egin duen inkestan oinarrituko da, honako irizpideak jarraituz:

N= inkestan 3 puntu edo gutxiago dituztenen item kopurua

N = 0 edo 1 bada, Nota = 10 izango da

N = 2 bada, Nota = 9 izango da

N ≥ 3 bada, Nota = 8 izango da

Epaimahaiak kalifikazio hau aldatu ahal izango du tutorearen txostena oinarritzat hartuta.

Nazioarteko programak: lauhileko bat atzerrian

“Kanpoko Praktiak” irakasgaia gaintzeko, beharrezkoa izango da gutxienez lauhileko bateko egonaldia egitea Estatuko zein atzerriko beste unibertsitate batean Eskolak dituen hitzarmenen bidez.

Egonaldiaren ebaluazioa burutzeko, ikasleak beste unibertsitatean egindako irakasgaien batez besteko nota (BBN) edo/eta GRALaren nota hartuko dira oinarritzat.

BBN ≥ 9 bada, Nota = 10 izango da

7 ≤ BBN < 9 bada, Nota = 9 izango da

BBN < 7 bada, Nota = 8 izango da

Atzerriko hizkuntzak: ingelesa, frantsesa edo alemana.

“Kanpoko Praktiak” irakasgaia gaintzeko, nahitaezkoa izango da gutxienez 9 kreditu lortzea atzerriko hizkuntzen bidez (ingelesa, frantsesa edo alemaniera) hurrengo irizpide hauei jarraituz:

Kreditu kop.	Maila	Ingelesa	Frantsesa	Alemaniera
9	C2	Proficiency Cambridge	Institute Français: DALF C2	Goethe: Grobes Deutsches Spachdiplom
7	C1	Advanced Cambridge	Institute Français: DALF C1	Goethe Zertifikat
5	B2	First Certificate Cambridge	Institute Français: DALF B2	Goethe Zertifikat
2	B1	Preliminary English Test Cambridge	Institute Français: DALF B1	Goethe Zertifikat

Hizkuntzen ebaluaziorako, ebaluatu beharreko hizkuntzan lortutako mailarik handiena hartuko da kontuan hau da:

C2 lortuz gero, Nota = 10

C1 lortuz gero, Nota = 9

B2 lortuz gero, Nota = 8

Hezkuntza-lankidetzeta edo Eskolako sailetako lankidetzeta eta hizkuntzak konbinatuz

“Kanpoko praktikak” irakasgaia gaintzeko, 25 orduko ordu multiplo bat egin ahal izango da, ECTS kreditu bati dagokiona, eta, gainera, hizkuntza-maila desberdinak gaintu, bi jarduerak konbinatuz. Nota egindako konbinazioaren arabera neurtuko da.